

# **CONFEBASKEK CCOO, UGT ETA EUSKO JAURLARITZARI AURKEZTUTAKO AGIRIAREN BALORAZIOA**

**“Gobernuek patronalarekin lanaren aurkako erasoan kolaboratzen duten artean, oldarraldiarentzako oztopo bakarra langileak sindikatuetan antolatzea izango da”**

2015eko azaroaren 26a



## SARRERA

Confebask patronalak “Elkarrizketa Sozialeko Mahaia” delakoan parte hartzen duten erakundeei (CCOO, UGT eta Eusko Jaurilaritza) agiri bat aurkeztu zien: “Lan harremanen eredu baterako printzipio eta irizpideak”.

Dokumentua aztertuta, ELAk honako balorazioa egin du:

**1.- Confebaskek gobernuengandik nahi duena lortzen du, areago egungo fasean.** Patronalaren proposamenak analizatu aurretik, aipatu beharrekoa da patronala ziur dagoela Gobernuak bere alde jokatzeko dutela, eta hala egiten jarraituko dutela. Egin diren erreformek lan harremanetan desoreka larria eragin dute patronalaren mesedetan, eta honek baliatu egiten du. Duela gutxi CEOEk esan zuen patronalak ez zuela ezer negoziatu beharrik, legeek nahi duten guztia ematen baitiote.

Confebaskek badaki -hala jakinarazi digu- inboluzioak espainiar Estatuan jarraipena izango duela esparru guztietan, baita sozialean eta laborean ere.

**2.- Agiriari zinismo gordina dario.** 9. orrialdean hitzez hitz hau esaten da: *“Lan-harreman modernoek eskatzen dituzte (...) adostasun berriak, zeinak areago izan beharko luketen beren eragileen ardura -langile eta enpresario, sindikatu eta enpresario elkarteena- botere publikoena eta arau legalarena baino”*.

Ziniko hutsa da hori esaten duena, bi erreforma basatiren oparia jaso ondoren (bata Zapaterorena eta bestea Rajoyrena), babes hori ez bailegoan ausartzen baita esatera “sindikatuoi eta patronalari” dagokigula lan harremanak zehaztea. Are onartezinagoa da patronal horrek berak, CEOEren bitartez, datozen hauteskundearen ostean osatuko den gobernuari beste erreforma laboral bat exijitzea. Esaterako, CEOEko hainbat aholkari eskatzen dute Estatuan lan harremanak erabat indibidualizatu behar direla (lan-kontratua hitzarmen kolektiboen gainetik egotea, maila hierarkikoan), eta bertan behera geratu behar dela lan-hitzarmenen eragin orokorra. Halaber, nahi dute epaileek ez dezatela ahalmenik izan enpresen erabakiak ezabatzeko, enpleguari buruzko gaietan.

Hauek dira patronalak ezarri dituen helburuak; gure iritziz, sindikatuak aintzat hartu beharko lituzkete, eta gutxienik zilegitasunik ez eman denborapasarako baino ez dauden mahaiei. Patronalak uste osoa du legeengan; soilik legeengan.

**3.- Patronalak, Agirian dioen legez, askoz gehiago nahi du.** Dokumentuak eskrupulurik eta orekaren zentzurik gabeko patronal bat erretratatu du. Ametsetan ere ez zuten uste izango honelako krisi batean hainbeste botere metatuko zutenik. Berdin zaie honez gero eman dietena; ez da nahikoa, askoz gehiago nahi dute. Hain otzan ikusten ditu gobernuak, non ausartzen den sindikatuei esatera eskubide laboralen eta lan duinaren aroa amaitu dela.

Patronalak dio soldata eta gainerako lan-baldintzak enpresarioaren aldebakarreko erabakiz zehaztu behar direla. Ez dute aintzat hartzen soldatek sekula ez dutela gaur baino aberastasunaren zati txikiagoa izan.

Confebasken apustua, malgutasuna eta lan-baldintzen etengabeko egokitzapena, dagoeneko enpresak erabiltzen ari diren prekaritate estrategietan sakontzea litzateke (azpikontratazioa, outsourcing, etab.); horien ondorioz kontratu berriak egun inoiz baino miserableagoak dira.

**4.- Patronalak nahi du lan-zuzenbidea eta enplegu duina erabat “lehiakortasuna”ren balio gorenaren menpe jartzea.** Lan-eskubideei dagokienez posizio erreazionarioa da. Halako posizioa finkatzen duenaren eredu dira baldintza laboral eta sozialak txikitzen dituztenak (kontratazio miserablea eta beren errententzako zerga-salbuespenak...). Nahi

dutena da klase enpresarial guztiak jarraitzea eskubide laboral eta sozialak hondatzen dituztenen adibidea. Horregatik oztopotzat jotzen dute negoziazio kolektiboaren eraginkoratsuna: lan-baldintzei erasatea galarazten dielako.

Gainera, ELAk nabarmentzen du oso kontutan izan behar dela gero eta hedatuago dagoen errealitate bat, zeina milaka langilek bizi duten, izan ere, kaleratuko dituzten beldurrez, ez baitira ausartzen salatzaera pairatzen dituzten abusu laboralak, hitzarmenen urraketak, kobratu gabeko aparteko orduak... Egoera ilegal honi buruz gobernuak ez dute ezer egiten. Aski da gogoratzea Confebaskek eta Eusko Jaurlaritzak zein jarrera agertu duten ELAk Eusko Legebiltzarrean aurkeztu zuen Herritar Legegintza Ekimena (HLE) dela eta (honen helburua Administrazioaren menpeko azpikontratetan gutxieneko baldintzak ezartzea da): Jaurlaritzak (EAJren talde parlamentarioak) ez du ontzat eman nahi, eta Confebaskek “zentsugabekeria” dela esan du.

**5.- Confebaskek sindikatuen “kolaborazioa” eskatzen du lan-baldintzak etengabe “egokitzeke”.** Patronalarentzat traba bat da lan-baldintzen defentsa kolektiboa. Kolaboratzeak badakigu zer esan nahi duen, krisi honetan ezagutu baitugu: enplegua suntsitzea, etengabeko xantaia...

Sindikatuok, Confebasken iritziz, enpresen lankide izan behar dugu, beroien bizitzan integratu, zuzendaritzaren helburuekin bat egin. Sindikatuok lagundu egin behar omen dute lan-harremanen ikusmolde harmoniko horretan. Haatik, ikusmolde hori ez dator bat lan munduan eta gizartean bizi den gatazkarekin.

**6.- Confebaskek enplegu egonkorra ahalbidetzeko malgutasun formulak exijitzen ditu, barnerako (enpresaren baitan) zein kanporako (kaleratzeak errazteko).** Eufemismoak gorabehera, Confebaskek prekaritatea nahi du “aldaketei moldatzeko gaitasuna” bermatzeko. Patronalak lege-iruzurreko kontratazioa erruz erabiltzen du, eta gobernuak hau eragozteko ez du ezer egiten.

Atal honetan, ELAk ohartarazi nahi du Lan-Administrazioak ez dituela ikuskatzeko eta zigortzeko bere tresnak erabiltzen kontratazioan gertatzen den iruzurrari jazartzeko; izan ere, bere botere hertsatzailea lagungarri izan beharko litzateke gizatasunik gabeko lanera behartuta dauden langileentzat, salatzeke beldurrez daudenean.

**7.- Confebasken ustez, negoziazio kolektiboak enpresen aldebakarreko erabakia ahalbidetu behar du.** Hitzartutakoa ezin da inola ere oztopo izan, hots, ituna edozein unetan aldatzeko aukera irekita egon behar da. Ituna enpresentzat ez litzateke derrigor bete beharrekoa. Hitzez hitz hau dio Confebaskek: “negoziatutako malgutasunak ezin du blokeatzeko aukera ireki”. Honelako adierazpenek negoziazio kolektiboa zalantzan jartzen dute erabat. Hitzartutakoak ez du, patronalarentzat, inongo indar loteslerik. Confebaskentzat negoziazio kolektiboa doikuntza-faktore bat da, inola ere ez aberastasunaren banaketa justuagoa eragiteko eta lan-baldintzak hobetzeko tresna.

**8.- Jaurlaritzak Confebask babesten du.** ELAren iritziz, zalantzarik ez dago Gasteizko gobernuak Confebasken alde egin duela, ñabardurarik gabe. “Jarduera ekonomikoa laguntzeko” planetan patronalaren aldeko posizio ideologiko bat dago, eta honek askatasun sindikala, lan duina eta negoziazio kolektiborako eskubidea gutxiesten du.

Sarri, Jaurlaritzako sailburuak edota Foru Aldundietako diputatuak entzuten ditugunean, kostatzen zaigu patronalaren bozeramaileengandik bereiztea.

Confebasken dokumentuan jasotako argudio eta proposamenak funtsean bat datoz Eusko Jaurlaritzak “aditu” batzorde bati Elkarrizketa Sozialaren Mahaia osatzeko zenean eskatu zion paperekoekin. Agiri hartan esaten zen enpresan interes kontrajarriak daudela; lan-harremana ez dela desberdinen arteko harreman bat, eta enpresa pertsonen (enplegatzaile-

enplegatu) interesak kontziliatzeko esparru gisa definitzen zen, sindikatuak aipatu gabe. Negoziazio kolektiboko malgutasunaz adituek zioten negoziazio sektorialak sekula ezin zuela enpresen egokitzeko beharra eragotzi. Agerian geratzen da honek Confebaskek orain eskatzen duenarekin antza handia duela. Jaurlaritzak propio lan egin du orain Confebaskek dituen posizio erreakzionarioentzako ildoak urratzeko.

Balorazio honetan ELAk aipatu nahi du patronalak Jaurlaritzatik eta Aldundietatik jasotzen duen finantzazioa. Soziala den guztiari erasotzen dion lobby bat finantzatzen dute. Haatik, gobernu eta aldundi demokratiko batzuk bermatu egin beharko lukete diru publikorik ez dela baliatuko patronalen egitura finantzatzeko.

Halako dokumentu erreakzionarioak plazaratuta ere, Confebaskek badaki ez diotela inolako kalterik egingo. ELAk nabarmendu nahi du Jaurlaritzak eta Aldundiek babesten dituzten erakundeok ordezkaritza maila ezezaguna dutela. Confebaskek eta berau osatzen duten patronalek ordezkaritza otorgatua dute, inork egiaztatu gabekoa.

**9.- Confebaskek iragarri du bere helburuak mailaka eta egoeraren arabera gauzatuko dituela.** Hau da, zeharka esanda, Agiriko datu positibo bakarra. Honetaz hitzez hitz hau dio: *“Lurralde Historiko bakoitzaren eta are sektore bakoitzaren egoera desberdina da; beraz, planteatzen ari garen negoziazio kolektiboko ereduaren aplikazioak baldintza konkretuen araberako erritmo eta ezaugarriak eskatzen ditu”.*

Negoziazio eremu bakoitza antolatuz gero -enpresa zein sektore dela ere-, sindikatuok Confebaskek aipatzen dituen “baldintza” horien artean geundeke.

**10.- Benetan, ELAk ez du arrazoi sindikal objektibo bat ere ikusten sindikatuek honelako mahaietan parte hartzeko.** Ikuspuntu sindikaletik, CCOO eta UGT inolako edukirik ez duen Mahai baten inguruan esertzea gero eta ulergaitzagoa gertatzen da. Gobernu eta patronalak sindikatuen presentziaz baliatzen dira doitzeko politikei normaltasun itxura emateko eta Europako patronalik erreakzionarioenetako baten interesak finkatzeko.

Halaber, salatze modukoa deritzogu CCOOk eta UGTk negoziazio kolektiboaren zentralizazioa babesteko jarrerari. Bi sindikatu horiek patronalaren aldetik legitimazioa bilatzen dute ustezko monopolio bat iristeko; hau larrutik ordaintzen dute langileek. Batetik, arau demokratikoak saihesten direlako non negoziatzen den erabakitzea galarazteko (muturreraino, gainera: Madrilen baimenik gabe sektoreko eremuak irekitzeko aukera itxi nahi dute). Bestetik, hitzarmen hauen xedea enpresen soldatak merkatzeko estrategia laguntzea delako.

## ONDORIOAK

Aurkeztutako agiriak berretsi egiten du patronalaren helburuak zeintzu diren: lan-harremanen eredu baten aurkako eraso eta eraispena saiakera; eredu horretan negoziazio kolektiboak aberastasuna banatu eta lan-baldintzak hobetzeko benetako funtzioa izan du. Horren aurka, Confebaskek iraganera itzularazi nahi gaituen eredu berri bat aldeztu du, non enpresen aldebakarreko borondateak neurritara egindako lege inbolutiboen babesaren duen; horrela ugazabek soldatekin eta lan-baldintzekin etengabe doikuntza egiteko aukera dute. Helburu bakarra, eufemismoz apaindua izanagatik ere, akziodunaren errentagarritasuna, etekina, bihurtzen da.

Hipotesi gisa bi tresna lirateke patronalaren asmoak geldiarazteko gauza: Gobernuen politika eta botere sindikala.

Lehenari dagokionez, gobernuek baztertu egin dute patronala beste oreka bat ezartzera behartzeko aukera; sarri askotan ikusi dugu. Erreformen edukia agerian uzten du hori. Gainera, duela gutxi euskal esparruan Eusko Jaurlaritzak babesaren eman zion Confebaski, patronalak Madrilerara igorri zuen agiri batean ELA eta LABi sindikatu izaera kentzeko prozedura ezar zedila eskatu ondoren. Gasteizko gobernuak ez zuen aintzat hartu izan nahi horrelako eskari baten esanahia, eta Confebasken jarrera zuritu zuen, delako Elkarrizketa Sozialako Mahaian eserraraziaz.

Bigarren tresna, noski, borroka sindikal antolatua da. Pairatu ditugun erreformak eta arestian aipatu dugun gobernuen kolaborazioak sindikatuok behartu egiten gaituzte ildo hori jorratzera. Langileon antolakuntzak patronalaren helburuei aurre egitea ahalbidetzen digu.

ELAk errealitate lazgarri bati egin nahi dio aurre. Badakigu sindikalismoarentzat gaur eta etorkizunean antolakuntza zein garrantzitsua den. Gu ziur gaude, aurreko guztia ikusita, lan-baldintza duinak lantokietan sindikatuak duen presentziaren arabera izango direla.

ELAk ez du irudikatzen gizarte demokratikorik non lan-harremanak enpresarioaren aldebakarreko erabakiz taxutzen diren, edota beldurrak jendearen galarazten dion bere eskubide laborala eta sozialak erabiltzea. Ez dago sindikatu indartsurik gabeko gizarte demokratikorik.

Confebasken lan-harreman ereduaren enpresa handiei, korporazioei eta multinazionaliei komeni zaie; hain zuzen, Estatuan erreformen aitzindari direnei, zeinek gogoan helburu bakarra duten: akziodunen etekina maximizatzea; hartara, horri aurre egiten dion edozer, sindikatuak barne, deuseztatu beharra dago.

Euskal patronalarentzat espainiar legea eta negoziazio kolektiboaren zentralizazioa oso erabilgarria da. Confebasken agiriaren gauzatuz gero lan-harremanak gaur espainiar legedian daudena baino areago desarautuko lirateke. Desarautzeko helburua bat dator Confebaskek Lan Harremanen eta Gizarte-Babesaren Euskal Esparruarekiko duen gutxiespenarekin. CEOEren bitartez EAEko patronalak espainiar markoaren alde egiten du, eta eroso asko dago hor.

ELAren ustez deitoratzekoa da botere politikoa, hots, Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak, gure gizarteko jende xehearren aldeko oreka ezartzen saiatu ordez ordezkariak jakinik ez duen patronal hau goraiatzeko eta finantzatzeko aritzea.